

2019/00001386 DEKRETUA

DEKRETUA.- Hernanin, 2019/08/30

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

**ERABAKI DUT:**

**LEHENA.-** Alkatetza honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoa, ondoko udalkide honen **ESKU UZTEA**, irailaren 4tik aurrera

\* Itsaso lekuona Legorburu, and. (EH BILDU): -  
**BERDINTASUNA, KULTURARTEKOTASUNA, ETA LANKIDETZA.**

**BIGARRENA.-** Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:

1.- Arloa oro har zuzendu eta kudeatzeari buruzko eskumenak:

- Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
- Udalbatzaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai zerrendan gaiak sartzea proposatzea.
- Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.
- Alkateari jardun irizpide eta helburu orokorrak proposatzea, bai eta proiektu handien programazio orokorra ere.
- Alkateak ezarritako helburu orokorrak betetzera zuzendutako ekintzak eta helburu espezifikoak finkatzea.
- Arloko antolakuntza egiturako aldaketak alkateari proposatzea.
- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
- Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
- Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.

2.- Administrazio egintzei lotutako eskumenak.

- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignazkorik baldin badago.

- Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeko eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
- Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau hausteak zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagozkie.
- Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekurtsoak ebaztea.
- Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.

3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.

4.- Alkateak eskuordetzea ezeztatu ahal izango du.

5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.

6.- Kanpoan 24 orduetik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.

7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.

8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.

9.- Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.

10.- Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.

11.- Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

**LAUGARRENA.-** Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua; alkatea . Sinatua: udal idazkariordea



